

TTUNKURRUNKU: HAURRA ETA HITZAREN BEROTASUNA

Juan Kruz IGERABIDE

1) JUAN MARI LEKUONA GOGOAN

Manuel Lekuonaren liburuetan ezagutu nuen lehen aldiz *Ttunkurrunku* pieza tradizional hori, sehaskaren kulunka adierazten duen onomatopeia-jatorrikoa inondik ere. Pieza horrekin batera, *Ttikirriki* ezagutu nuen, perkusio-tresna herrikoiren baten oihartzunarekin. Juan Mari Lekuonaren ahotik entzun nituen kantaturik, eta, Juan Mariren azalpenak entzun ondoren jabetu nintzen pieza horiek barruan gorderik zeukaten altxorraz.

“Hitzaren berotasuna” ipini dut izenburuan. Izate osoarekin adierazten den hitzaz ari naiz; ez buruz ikasi den zerbaitez soilik, baizik eta norberaren behar afektiboekin loturiko zerbaitez. Aspaldi aurkitu zuen Freudek gure jokabideen jatorria ezkutuan dagoela, gure bizipen afektibo-emozionalekin lotua; berak sexu-grinarekin uztartzen zuen jatorri hori; beste ikertzaile batzuek oinarri zabalagoa eman diote, betiere bizipen afektibo-emozionalekin erlazonaturik eta sinbolo bilakaturiko giza esperientzia unibertsalekin uztarturik. Hala ere, Freud eta enparauek baino askoz lehenagotik adierazia zuen gizakiak jatorri hori; garbi ageri da mitoetan, esate baterako.

Hitz beroa, beraz. Hizkuntza bat berreskuratzeko ahalegina, zenbaitentzat, proiektu politiko baten alde bat baino ez da, identitate nazionalaren ikur nagusia nahi bada. Beste ikuspegi batetik, balio kultural unibertsal bat zaintzea ere bada, batez ere hizkuntza hori munduko lehen hizkuntzetatik oso gertu dagoela jakinik, Europan oso hizkuntza gutxi geratzen baitira indoeuroparrak ez direnak, eta kontu hori bada aski arrazoi gure hizkuntza hau altxor unibertsal izendatzeko. Nik beste ikuspegi bat gehitu nahi nioke horri guztiari,

eta batik bat zerk motibatzen nauen azaldu; nire iritziz, hizkuntza berpiztearen auzia lurrarekin lotua dago batez ere, ez lurraldetasunaren zentzu politikoan, baizik eta zentzu antropologikoan, zentzu “telurikoan” edo sinbolikoan nahi bada (sinboloa, betiere, ikuspegi dinamiko batetik harturik, giza bizi-penekin loturik).

Lurrarekin eta haurtzaroarekin. Haurrak, garatzeko, lurean ondo errotu behar du, edozein landarek sustraiak ondo errotzen dituen bezala. Gero, enborra luzatu, besoak zabaltu eta edonora iritsiko da, baina, sustraiak ongi erroturik ez baditu, beti kili-kolo ibiliko da. Bada, sustraitze horretan hizkuntza lehen mailako baliabidea da, sustraitze horren giza esperientzia luzea biltzen du-eta bere baitan, denbora luzean gizaki askok eginiko sustraitze hori sinbolikoki bildurik baitauka hizkuntzak bere baitan.

Hitz beroa, beraz. Ez da gauza bera “hau mahaia da” erakustea edo “Bonbolontena, ene laztana, ez egin lorik basoan, azeritxoak eraongo zaitu erbia zarelakoan”. Hizkuntza denotatiboa, ingurua nolakoa den erakusten duena beharrezkoa da, eta eskolak hori erakusten du batez ere; baina hizkuntza afektiboa beharrezkoagoa da, batik bat lehen urteetan. Hizkuntza bat ingurua erakusteko, “hau mahaia da” esateko bakarrik irakasten bada, erabat formala izango da, eskolarako bakarrik erabiliko da, eta behar afektiboak beste nolabait adierazi beharko ditu haurrak (batez ere nerabazarora iristean), gaztelaniaz edo ingelesez, edo hizkuntza ez den beste adierazpide baten bidez. Psikologoek garbi erakutsi digute gure jokabideak batez ere bizipen afektibo-emozionalek gidatzen dituztela. Hor dago, bada, koxka: haurrak txiki-txikitandik hizkuntza afektiboaren beharra du, beraren behar nagusiak asetzeko hizkuntza afektiboa eskaini behar zaio batez ere. Eta hizkuntza afektibo hori mendeetan zehar bildurik, ondurik eta sustraiturik dauka poesiak, hala poesia herrikoiak nola jasoak.

Hitz beroa, horrela, poesiaren aldeko aldarria bihurtzen da. Ez politagoa delako, barruaren egarria delako baizik, eta egarri hori handik edo hemendik ase egin behar delako, haurraren garapena modu orekatuan eta aberatsean gerta dadin.

Haurraren eta hizkuntzaren arteko harremanean, bi joera bereiz ditzakegu: bata kanporakoia, bestea barnerakoia. Biak dira beharrezkoak; kanpoan ikusten eta bizitzen dena adierazten du hizkuntzak; baina bizipen horiek barruan arrastoa uzten dute, eta horri ere hitza jarri behar zaio, barrua ere antolatu egin behar da, ingurua bezainbat, haurrak oreka izango badu. Barruari hitz egiteko moduak eta bideak beharrezkoak ditu haurrak; eta horretarako biderik emankorrena poesia da. Horretaz jabetu nintzen haur txiki-ekien irakasle nenbilela. Begietara begiratu besterik ez zegoen, ikusteko zer desberdina zen erantzuna ondorengo bi kanta hauen aurrean:

*Pintto, Pintto, gure txakurra da
Pintto, Pintto, bere izena du;
txuri-beltza da ta
ez du koska egiten
begi bat ixten du
jolastu nahi badu.*

Kanta hori kanporakoia da, denotatiboa, jolaserako asmatua. Deskripzio bat da eta ez du lotura zuzenik emozio sakon batekin.

Beste hau, ordea,

*Xoriñoa norat hua bi hegalez aidian
Espainialat juaiteko elürre dük borthüan
Joanen gitük elgarreki
hura ürtü denian.*

Begira zer dioen beste estrofa batek:

*Hasperena habil hua, maiteñoaren bortalat
habil eta erran hiro nik igorten haidala
bihotzian sar hakio hura eni bezala.*

Maite-poema bat da noski, baina haurrak oso ondo barneratzen du, haur poesiaren ezaugarri asko baititu bere baitan (naturako elementuak nola erabiltzen dituen, animaliei hitz egitea, hasperena pertsonifikatzea...). Kanta hori sentimendu bat eta emozio bat adierazteko asmatua da, poesiaz betea dago, barnera begira dago. Haurren jarrera erabat aldatzen zen bataren eta bestearen aurrean.

Poesiak indar barnerakoia du, barnea berpizten du, inarrosten eta antolatzen; edo beste batzuetan desantolatzen, barruko graka astintzeko. Baina, dena den, haurren poesia batez ere barru-antolatzailea da. Desantolatze eta graka-desitsaste lanak geroagokoak direla esan daiteke.

Aitor dut, gaztaroan poesiara hurbildu nintzelarik, pertsona berezi, artista-senakoentzat baino ez zela uste nuela; beraz, eszeptizismo pixka batekin hurbildu nintzen haur poesiaren arlora, ezer taxuzkorik aurkituko ez nuelakoan; izan ere, ordura arte ezagutzen nuen haur poesia gehiena jolas hutsa zen, barne-oihartzun gutxikoa. Eta zer gertatuko, eta liburu berezi bat etorri zitzaidan eskuetara: Maria Rosa Colaço portugaldarraren *Poesia e vida*, haurrek idatzi edo adierazitako poemez osaturiko liburua; txunditurik utzi ninduen. Poema haietan, haurrek beren barrua erakusten zuten; auzo txiroetako haurrak ziren, eta beren eguneroko esperientzia gordinak edo pozgarriak adierazten zituzten, sakontasun harrigarritz. Poema batzuk lau urteko haurrek esan eta irakasleak kopiatuak ziren. Harrigarriak gertatu zitzaizkidan. Hitz beroa borborka zerien poema haiei.

Maria Rosa Colaço eta Juan Mari Lekuona. Maria Rosa ere duela urte gutxi hil zen. Bateratsu itzali ziren bi argi horiek.

Itzul gaitezen Ttunkurrunku kantura. Juan Mari Lekuonak kantu horren azterketa sinbolikoa egiten zuen: alde batetik biko erritmoa daukagu, sehaska batera eta bestera kulunkatzearen erritmoa, eta aldi berean sehaskak zoruko egurrean ateratzen duen soinuaren oihartzuna, onomatopeia. Esanahi denotatiborik apenas duen kanta horretan, ia ez baita ezer ulertzen, hitz bat nabarmentzen zaigu erritmo silabikoaren artean, “kuttun” hitza. Uler dezakegun hitz bakarra erabat afektiboa da. Lehenago aipatu dudana hitz bero barnerakoiaren eremuan gaude, ia ezer esaten ez badugu ere. Gero, *u* bokala erabil-tzeak itzala edo iluna adierazten duela zioen Lekuonak, eta aldi berean bare-tasuna; baina ilun hori ez da beldurgarria, *n* kontsonante emearekin baitago, amaren babesean alegia. Beste era batera esanda: kantuak lotarako giro epel babestua sortzen du, eta aldi berean maitasun sakona adierazten, *u* hori hala-ber sakontasunaren adierazle baita. Ez dakit Lekuonaren interpretazio hori zuzena den ala subjektiboegia; badakit, ordea, kantu hori barruraino sartzen dela, haurra lasaitu eta gozatu egiten duela, eta jakinaren gainean ari den gura-soaren bihotza urtzen duela; hori esperientzia zuzenaren bidez dakit, eta horregatik egiten dut bat Juan Mari Lekuonaren interpretazioarekin, nahiz eta kritika literarioaren aldetik agian ez hain sendoa izan. Pieza horren azterketa amaitzeko, gehitu nahi nuke horrelako piezetan gorputza eta mugimendua oso kontuan izan behar direla; haurra besoetan baldin bada, gorputza kulunkatuz mugitzen da; sehaskan baldin bada, sehaska kulunkatuz, mugimendu erritmi-koak eginez. Tradizio herrikoian, batik bat sustrai zaharrekoan, gorputza eta hitza bat dira, gorputza ere bada mezuaren adierazle. Pentsamendua, sentipe-nak eta gorputza batera ibiltzen dira.

2) DENBORAN ATZERA EGINEZ

Silabak modu horretan erabiliz kantuak eta esapideak osatzeko joera oso zaharra da, inondik ere. Bada dioenik hizkuntzen sorrerarekin loturik dagoe-la joera hori. Onomatopeiak eta hitz bikoizketak (atxia-motxia eta horrelako-ak) aztertu dituztenek oso atzera jotzen dute, hizkuntza indoeuroparrak kon-tinentean sartu aurreko garaietara, agian Paleolitoraino (nahiz eta hipotesi mailan geratu kontu horiek). Ez dakit noraino jo daitekeen atzera, eta ez dit asko axola horrek gure auzi honetarako. Pertsonaren barrura oso sakonera iristen direla, hori edonork proba dezake. Eta pertsonaren barrura iriste hori nolabait gizakiaren jatorrira iristea ere bada. Poema batek sakonean ukitzen zaituenean (edo berdin beste edozein arte-lanek) zugar oso zaharra den zer-

bait pizten du, gizakia gizaki denetik datorren zerbait. Eta horrek bizi-indarra ematen dio gure psikeari, gure arimari.

Beraz, herri tradizioaz eta hizkuntzaren sena gureganatzeaz ari naizenean, zerbait unibertsalaz ari naiz, oso atzera doan zerbaitez. Hizkuntza berreskuratzea edo tradizioa berpiztea nazio-identitatearen osagarri bat baino zerbait gehiago da; azken batean “nazio” kontzeptua oso berria da, burgesiaren asmazio bat; baina herri-tradizioa hori baino atzeragotik dator, gizakiaren eta lurraren arteko elkarriketatik, eta iruditzen zait hor kokatu behar dela haurra, gizaki oso eta orekatu haz dadin; ideologiak eta nazio-ikuspegiak gune historiko jakin batzuekin lotuta daude, eta ikuspegi horiek aldatu egiten dira eta aldatu egingo dira. Baina gizakiaren eta lurraren arteko elkarriketa eta hor mamitzen den hizkuntza giza izaeraren erro-errotik dator.

Jakina une historikoez eta garaian garaiko politikek badutela zerikusirik tradizioaren bilakaeran; garai bakoitzak bere oihartzunak uzten ditu, nola ez. Hala ere, badago indar bat, nire ustez poesiaren indarra (edo, oro har, artearena, nahi bada) garai bakoitzeko geruza horiek guztiak zeharkatzen dituen. “Ttunkurrunku” piezak gezi batek bezala zeharkatzen dituela aski nabaria iruditzen zait. Har dezagun, beste arlo batera joanda, ipuin bat, ipuinetan nabariago agertzen baitira, ustez, garai historikoen geruzak. Esate baterako, *Mari Xor* ipuinean (Eukal Mari Errauskin izan daitekeen horretan) kristautasunaren eragina nabaria da, zeren Ama Birjina agertzen baita maitagarri baten orde; bestalde, palazioaren orde, baserri handi bat agertzen da, zerbitzari eta guzti, eta printzearen orde maiorazkoa. Ezkontza eta festa-giroa ere oso gure artekoak dira; oso gertuko osagaiak ikusten ditugu, hala geografia aldetik nola historia aldetik. Baina istorioaren hezurdura sinbolikoa oso zaharra da: Ama Birjinak maitagarri baten gisa jokatzeko du, eta erlijioari magia gailentzen zaio; “zer da beharrezkoagoa aita ala gatza?”, ipuinaren intriga abiarazten duen esaldiak ere oso sinbolo zaharra du oinarri, eta gatza truke-dirutzat erabiltzen zeneko garaira garamatza, oso atzera. Eta antzarak zaintzea, eraztuna ogi barruan gordetzea, eta abar eta abar, nekazari-kulturak sortu ziren garaira garamatzate, Sumeriara, Indiara, Egiptora, Testamendu Zaharrera...

Bada sinbolismoari buruzko liburu interesgarri bat, Schneider antropologoarena¹, eta hark dio ezen guganaino Erdi Aroan zehar igaro den sinbolismoaren gorputza nekazari-kulturak sortu zirenean osatu zela, Mesopotamian, Egipton, Indian, eta abar. Gizaki primitiboak sortutako sinboloak bildu eta sistema bihurtu zituzten, eta harremanetan ipini zituzten koloreak, nota musikalak, zenbakiak, zeinu astrologikoak, izadiko elementuak, landareak, anima-

¹ Schneider, M. (1998), *El origen musical de los animales-símbolos en la mitología y la escultura antiguas*, Madrid, Siruela.

liak, objektuak..., eta sistema hori omen dago gure Mendebaldeko kultura guztien oinarrian. Horrez gainera, sistema sinboliko hori baino lehenago sortutako sinbolo primitiboen oihartzunak oraindik bizirik daude zenbait hizkuntzatan (eskimalen artean, Afrikako tribu batzuetan, Australian...), eta horien artean zenbait hizkuntza modernizatueta ere zantzuak ageri dira. Emango nuke “Ttunkurrunku” pieza zantzu horietako bat dela, baina ez daukat erreminta zientifikorik hori demostratzeko. Dena dela, mota horretako piezak tradizio herrikoietan oso zaharrak izaten dira. Bowra ikertzaileak² jasoak ditu antzeko piezak beste kultura batzuetan. Beraren iritziz, giza doinuetan hitzak agertu aurretik, silabak erabiltzen ziren, batzuk onomatopeiak, beste batzuk oihuen antzekoak, eta geroago sartu ziren hitzak kantuetan, eta are geroago esaldiak. Adibide batzuk eskaintzen ditu Bowrak; esate baterako, Amerika Hegoaldeko Suaren Lurraldeko indiarrenak, *yagan* leinukoenak; inondik ere, oso egoera primitiboan bizi ziren, eta oso modu bitxian adierazten zuten adiskidetasuna, hots, batera eta bestera jauzika modu erritmikoan ibiliz eta silaba ulertezinez lagunduriko kantu hau kantatuz (ikus nola ttunkurrunku piezaren jokabide bera duen: barne-sentipen bat adierazi giro bat sortuz, eta gorputz mugimenduz lagunduz):

Ha ma la
ha ma la
ha ma la
ha ma la...

Bereziki azpimarratzen du Bowra-k ezen kantatzen diren soinu horiek emozio bat adierazteko erabiltzen direla, eta oro har oso monotonoak direla, entzuten duenarengan halako eragin hipnotiko bat sorrarazteko-edo; hipnosiak, zentzu zabalean, entzulea baretzen du eta haren zentzuak zabaltzen ditu, eskaintzen zaiona barnera dezan eta horrek entzuleagan eragin bat izan dezan, adierazten zaion emozioa barnera dezan; esate baterako, emakumeek eta neskatxek kantatzen dute honako hau:

Ma las ta
xai na sa
ma las ta
xai na sa
ma las ta
xai na sa...

² Bowra, C.M. (1984), Schneider, M. (1998). *Poesía y canto primitivo*. Bartzelona, Bosch.

Edo beste hau:

Hau-a la-mas ke-te-sa
hau-a la-mas ke-te-sa
hau-a la-mas ke-te-sa...

Yagan leinukoek, inondik ere, kantu mota horiek soilik kantatzen omen zituzten, esanahi jakinik gabeko silabez osatuak. Beste leinu batzuetan, hizkuntza ezezagunetatik hartzen dira hitzak eta silabak, edo aspaldiko hitzetatik datoz, edo onomatopeietatik; baina, *yagan*-en kasuan, Bowra-k dio ez dela halakorik; nolabait, mota horietako kanturik garbienen adibide dira halakoak. Gure “*Ttunkurrunku*” halakoekin alderatzen badugu, onomatopeiak eta hitz ezagun bat behintzat identifikatzen ditugu; hurrengo pauso batean gaude inondik ere, baina hari bereko kantuez ari gara, zeren ezaugarri nagusia emozio edo sentipen baten adierazpena baita, eta egoera hipnotiko bat sortzea. Lirikarik antzinakoenaren jatorria ikusten du Bowrak halako piezetan, hots, poesiaren jatorria.

Suaren Lurralde berean, *ona* leinukoek ere antzeko kantuak zituzten. Goizean, egunari ongietorria emateko, honela kantatzen zuten:

Ha ra xe uka
ha ra xe uka
ha ra xe u

Eta, ilunabarrean, egunari adio esateko:

Hai ce rai ya
hai ce rai ya
hai ce rai ya

Beste leinu batzuetan, geroago eginiko kantuen zati gisa geratzen dira horrelako piezak, eta inondik ere horrelakoetatik sortu dira leloak, euskal “eta lelori bai lelo leloa zarai leloa” bezalakoak. Pieza horri “Lelok Zara hil” eta horrelako interpretazioak eman izan zaizkio, baina, gaur egun jaso dugun moduan behintzat, lelo silabiko bat baino ez da, barne-egoera baten adierazle erritmikoa.

Eskimalen eta beste leinu askoren artean topatu dituzte halakoak. Bowrak pieza bat aipatzen du, bereziki, *arapajo* indiarrengandik jaso. Erlijio erritoetan erabiltzen omen zuten. Honela dio:

Ye no wi ci hay
yo wi hay
wi ci hay
yo wi ci no
wi ci ni

wi ni wi ci hay
yo wi hay
wi ci hay
yo wi ci ni hay
yo wi ci ni hay
yo wi how
wi ci hay
yo wi ci no
wi ni no wa.

Harrigarriena da kantu horretan agertzen diren silabak ez direla erabiltzen *arapajo* hizkuntzan. Baliteke edo antzinako hizkuntza galduren batetik etortzea, edo helburu erlijiosorako osatuak izatea. Gainera, pieza hori bera inguruetako beste leinu indiar batzuetan ere erabiltzen omen zen. Bowrak dio izan litekeela indiar leinuen kanta horiek Suaren Lurraldeko kantak bezalakoa izatea aspaldi, eta gero, beste kantu motak agertu zirenean, hondakin gisa geratzea leinuen tradizioan.

3) GUREAN ERE

Hitz beroa diodanean, beraz, emozioarekin loturiko ahozko tradizioaz ari naiz, leinurik zaharrenetan sorturiko poesiaz, izaera osoa inplikatzeko poesiaz.

Gure hizkuntzan, halako jokabideen haritik batik bat jolas-poesia sortu da haur folklorean:

Xirristi-mirristi, gerrena, plat,
kikili salda, olio zopa,
hurru, edan edo klik,
ikilimikiliklik.

Bara, bera, hirua, lara,
boa, sea, zapa, zotza,
behatza motza,
errotako atsoa kaskamotza.

Eta horrelakoak. Baina baditugu sentipenei eta bizipen emozionaleri erabat loturikoak ere, eta horien artean adibiderik bikainenak ditugu “Ttunkurrunku” eta “Ttikiriki” kantuak, bata babesa eta lo-giroa adierazteko, bestea pozteko eta esnarazteko.

Ttunkurrunku ttunkurrunku
Ttunkurrunku ttuna
Runkuttunkku runkuttunkku
Runkukttunkku ttuna.

Ttikirriki ttikirriki
Ttikirriki ttona
Rikittiki rikittiki
Tikirriki ttona.

Eta molde horretakoak dira orobat *Ttolana*, *polana*, *ttonntila pon*, *Atxia motxia perolipan* eta beste, nahiz eta gaur egun lelo hustzat erabiltzen ditugun, edota zenbait kantaren sarrera gisa.

Gaur egun, ahozketasuna landu beharrez egiten diren ahaleginetan, iruditzen zait badagoela nahaste txiki bat: idatzizko testua oinarri duen ahozketasuna hartzen da abiaburutzat. Hori ongi dago irratiko, telebistako, irakas-kuntzako, hitzaldietako eta abarretako ahozketasuna lantzeko: ongi ahoskatzzen ikasi, diskurtsoa ondo antolatzen ikasi, jendearen arreta erakartzeko baliabide erretorikoak nola erabili ikasi... Buruaren agintepean dagoen ahozketasuna da. Alabaina, bada beste ahozketasun bat, etxekoa, eta eskolakoa ere bai hein handi batean, emozio eta sentipenen adierazpena duena abiaburutzat; hots, buruari baino gehiago bihotzari dagokiona. Arlo horretan, ez dago hizlaririk, munduko onena izanik ere, guraso totel baten parera iritsiko denik, bere umeari ipuin bat kontatzerakoan; ez dago CD edo grabaziorik, munduko ipuin-kontalaririk onenak kontatua izanik ere, gurasoaren ahotsa ordezkaturiko duenik. Eta berdin irakaslearena, eskolan gurasoaren lekua hartzen du eta.

Beste modu batera esanda, *Ttunkurrunku* edo beste pieza bat edo ipuin bat haurrari grabaturik entzunaraztea gaizki ez dago, baina ez du parerik amak edo aitak (edo irakasleak, eskolan) kantatu edo kontatzearekin. Sentipen edo emozio bat adierazteko piezak izanik, emozio hori adieraztea da garrantzitsua: ni zure ondoan nago, zu babesten ari naiz, nire kuttuna zara, oso gauza garrantzitsu bat adierazten ari naiz oraintxe, eta abar. Horiek dira ume bati poematxo bat edo ipuin bat esaten diogunean ematen dizkiogun mezu nagusiak. Forma aldetik hobeto edo okerxeago egitea, hobeto afinatzea edo desafinatzea, horiek bigarren mailako kontuak dira; hobe, noski, ahots ederrez eta afinaturik kantatzea, hobe ipuina ondo ahoskatu eta antzezteko ere gai izatea, hobe erritmo egokia ematea piezari... baina, norberaren gorputzaren presentziarik gabe, barruan sentitzen dugun gogoa nabarmendu gabe, norberaren ahotsarekin barruko emozioa zuzenean adierazi gabe... hori gabe, gainerakoa apainkeria hutsa da. Egin proba; haserre eta nazkaturik eta asperturik, hasi kontatzen ipuina sentipen horiekin, disimulatuz nahi bada, ea haurrak zer aur-

pegi jartzen duen. Gurasoa ipuina edo poema batere interesik gabe irakurtzen edo esaten ari denean, segituan antzematen dio haurrak. Oinarrian emozioa dago.

Ez ditzagun, bada, bi ahozketasunak nahastu. Oratoria beharrezkoa da gizarte-maila batzuetan. Ahozko poesia eta ipuinak, eta horiekin datozen emozio-adierazpenak beharrezkoak dira nortasunaren garapenean, barne-orekaz bizitzeko, eta hori hasierako urteetan oinarri-oinarrizkoa da, eta irakas-kuntza osoan ere ez genuke ahaztu behar. Nerabezaroan agertzen diren arazo asko adinaren ezaugarriek sortuak dira, baina beste asko adierazpen-arazoetatik datoz. Eta arazo horiek ez dira oratoriarekin konpontzen, poesiarekin baizik; poesia zentzu zabalean harturik noski, orain arte esandakoaren haritik. Sentipenei, emozioei, barne-zurrunbiloei izena jarri behar die nerabeak.

Beraz, badago oratoria baino oinarritzkoagoa den ahozketasun bat, eta hori da lehenik kontuan izan behar dena, bai etxean, bai eskolan. Eta etxeko ahozketasun horretan, badira pieza kanporakoak, jolaserakoak, dibertsiorakoak:

*Zubiri, zubiri, nongori nongo
 ¿nongo alkate zerade?
 Frantzibehera errega baten
 Seme-alabak gerade.
 Hemendik hurrena, hemendik hurrena
 pasatzen dena
 bertan geldituko dela.*

Horrelakoak dexente jorratzen dira eskoletan, eta pailazoei eta monito-reek aski erakusten dituzte, nahiz eta oraindik lan handia geratzen den egiteko.

Baina bada bigarren alde bat, ahaztu eta abandonatuxea duguna: pieza barnerakoak, lirikoak, barne-emozioei hitzak jartzen dizkietenak. Hor sartzen dira gure *Ttunkurrunku* eta lo-kanta gehienak; hor sartzen da poesia lirikoa, errima eta hitz-jolasa baino areago doana, sentipen bat barruraino eramateko gai dena; hor sartzen dira amandre-ipuinak, barne gatazka sakonenen adierazle direnak, hor sartzen dira gaur idazten diren ipuin asko ere.

Haurrari modu horretan mintzatzen zaizkion ipuinak eta poemak baztertuxeak ditugu; iruditzen zait ez garela jabetzen gehiegi arlo horretaz. Dibertitzeko eta ondo pasatzeko ipuinak eta kantak behar dituzte, eta ahalik eta egokienak eskaintzen dizkiegu; baina barrua osatzeko piezak ahazturik dauzkagu. Are gehiago; askotan, ipuin zaharregiak iruditzen zaizkigu, ez bate-re modernoak, eta atzera egiten diguten balio ideologikoak ikusten ditugu haietan. Balio horiek, nire ustez, axaleko kontuak dira; funtsezkoa egitura sinbolikoan dago.

4) HIZKUNTZA IKASTEKO BALIABIDE

Beste kontu bat ere jorratu nahi nuke oso erroturik dagoen uste bati buruz. Poesia eta ipuinak hizkuntza ikasteko baliabidetzat hartzen dira batez ere, beste testu mota bat omen dira. Irakaskuntza klasikoak adibide gisa erabiltzen zituen poemak eta ipuinak, hizkuntza bere aberastasun osoan erakusteko. Testuaren pedagogiak ere poesia eta ipuina testu mota bat gehiago direla dio, besteren artean, eta hala tratatzen ditu, deskripzioak egiteko, kontatzen ikasteko, koherentzia eta kohesioa ongi egituratzeko, eta abar. Ez nator bat ikuspegi horrekin; ezin dira maila berean tratatu testu denotatiboak (erakusteko direnak) eta testu afektiboak (norberaren barrua adierazteko direnak). Literatura batik bat bigarren alde horrekin loturik dago, eta irakaskuntzaz haratago pertsonaren izateaz ari da. Ez da testu mota bat gehiago, izatearen testua baizik. Gehiago esango dut: hizkuntza idatzia sortu aurretik, poesiak jasotzen zuen hizkuntzaren adierazpide osoa, bai denotatiboa, bai afektiboa. Epopeia zaharretan, gizarte bateko gizakien bizimodu osoa gordetzen da: legeak, ohiturak, jakintza, eta bizipen afektiboak; dena bat zen. Gero sortu ziren generoak eta testu motak. Beraz, poesia dago testu mota guztien sorburuan, poesia da denen ama, errezetarik sinpleenarena ere bai, ez da testu mota soil bat.

Gaston Bachelard literatura-ikertzaileak psikoanalisiaren ikuspegitik aztertu eta uztartu zituen gure ametsen mundua eta literatura, lau elementu oinarritzkoetatik abiatuta: lurra, ura, airea eta sua. Hark zioen errealitatearen ikuspegia galtzen duena bezain neurotikoa dela irudimenaren ahalmena zapuzten duena. Zer pentsatua ematen du horrek; gogora dezagun nola lantzen zuten irudimenaren arloa gure arbasoek; ikus dezagun gaur ikus-entzunezko programa txepelen bidez arlo hori betetzen, eta hortik etor dakigukeen gainbehera espirituala begien bistakoa da.

Poesiaren eta ipuinaren indarra berreskuratzea aukera paregabea da, Bachelard-ek dioen irudimen hori aberasteko. Gaur egun, gizarte garatueta gaitzik handienak buruan daude; izurrite modernoa izango omen dira burunahasteak. Nik ez diot poesiak eta ipuinak arazoa konponduko dutenik; inozokeria litzateke hori; baina bai laguntza handia direla, ikertzaile askok probatu eta erakutsi dutenez.

5) ZATOZ, ILBERRI

Ilberri, zatoz, ekarri ura, ekarri ura.
Ilberri, zatoz, egin euria, egin euria.
Ilberri: bota ur zipriztinak guri.

Gaur egun, eten bat bizi dugu: hitza erreferentetik urrunago dago (tarte-an proiektu mediatikoak daude); umea ez da zuzenean izadian txertatzen, gizarte babestu baten bitartez baizik. Beraz, hizkuntzak adierazpen-indarra galtzen du, urgentziatzko indar hori. Indar horri eusteko bide bat norberaren sentipenekin lotura zuzena egitea da, eta gizakiak izan dituen kezka unibertsalekin lotura sinbolikoa berreraikitzea. Aukera hori eskaintzen du poesiak eta ipuin tradizionalak.

Aipaturiko behar urgentziatzko hori bete-betean agertzen da nerabezaroan. Nerabezaroa da bizitzaren basoan buruz behera murgiltzeko une erabakigarria. Hizkuntza biziaren behar larria agertzen da garai horretan. Baina hori beste hitzaldi baterako gaia da.